2019. URTEKO JARRAIPEN- ETA EBALUAZINO-TXOSTENA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BARDINTASUNERAKO PLANA 2017-2020

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

MURGIBE. 2020KO OTSAILA

Aurkibidea

1. Testuingurua.. 3

2. Jardueren zerrendea 6

3. Emaitza orokorrak. Betete-mailea 8

4. Adierazleen segimentua 15

Eranskinak

Aktak

Komunikazinoa

Argazkiak

1.- Testuingurua

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK Emakumeen eta Gizonen Bardintasunaren alde hartu daben konpromisoa argia da eta horregaitik jarraitzen dau modu aktiboan behar egiten bere kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko. Plana lau jarduketa-ardatzetan egituratzen da, eta 42 ekintza definiduten ditu; ekintzotako asko era jarraituan gauzatzen dira.

Bardintasun Planaren indarraldiko azken urtea danez, une egokia da bigarren plan bat egitearen bideragarritasuna balorateko.



Bizkaiko Batzar Nagusiek MURGIBEren laguntza teknikoa izaten jarraitu dabe, egindako ekintzen jarraipena, laguntza, aholkularitza eta ebaluazinoa egiteko.

Adierazi behar da 2019an XI. agintaldia hasi dala, eta, horren ondorioz, pertsona barriak sartu dirala erakundean, eta, horrenbestez, bardintasun-lantaldean.

2019ko memoria honetan planaren garapenaren ebaluazinoaren atalak jaso dira; izan be, prozesu hori beharrezkoa da plana betearazotean lortutako datuetatik abiatuta gauzatzen diran interbenzinoen balorazino kritikoa egiteko eta etenbako hausnarketearen eta hobekuntzaren ikuspegia hartzeko.

Informazino horri esker, oinarrizko hiru itauni erantzun ahal jake:



Ebaluazinoak aukerea emoten dau Planaren jarraipenari eta hedadureari buruzko gai honeek ezagutzeko:

- *Aurreikusitako ekintzen betete-mailea*; *espero izandako emaitzen alderako desbideraketea; planifikatutakoen aldean lortutako emaitzak*.
- *Estaldura-mailea*: onuradunen kopurua onuradun potentzialen aldean.
- *Kalidade-mailea*, hau da, beharrizanei zelan erantzun jaken, bai kuantitatiboki (artatutako personen kopurua), bai kualitatiboki (gogobetete-mailea).
- *Efizientzia:* Plana gauzatzeko erabilten diran baliabideak; giza, teknika- eta aurrekontu-baliabideak barruan sartzen dira.
- Plana sustatzen dauen lantaldearen funtzionamentua, kudeaketa-prozesuak eta horretarako ezarten dan koordinazinoa.
- Aurreikusitako kronograma.

2.- 2019an eginiko jardueren zerrendea

Atal honetan, 2019an eginiko jardueren laburpena baino ez da jaso.

1. Bardintasun-lantaldeak batzar bi egin ditu.

2. Aurrekontua bideratu da Bardintasunerako Plana betearazoteko.

3. Dokumentazinoa barrikusi da (liburuxkak, gidak, administrazino-dokumentuak, webgunea eta intraneta) komunikazino inklusiboaren ikuspegitik, eta egokitu da dokumentuetako hizkerea eta irudien erabilerea.
4. Ardurea hartzen da parlamentu-antolaketako eta jarduerako ordutegiak ez daitezan izan lan-bizitzea eta familia bateragarri egin beharraren kontrakoak. Horretarako, bada, batzordeak 9:30etik aurrera hasten dira eta ahal dan neurrian ez dira arratsalderako deitzen.

5. Kontratetako baldintza teknikoen agirietan, gizarte- eta bardintasun-klausulak egokituz joan da, horreek balorateko eskakizuna sartuz.

6. “Alkarrizketak bardintasunean” jarduerearen edizino BI antolatu dira.
   - "Emakume saharartak: duintasuna eta erresistentzia"; partaideak: Raabub Mohamed Lamin Mehdi medikua eta "Doctora BituhaElkartea" elkarteko arduraduna (Saharako gatazkaren biktima emakumezkoei laguntzeko alkartea) eta AichatuYeslem, Zientzia Politikoetan graduatua eta Euskadiko Saharar Gazteen Elkarteko kidea.
   - "Demokrazia patriarkala EHAEn" Jule Goikoetxea filosofo politiko eta ekintzaile feministarekin. Bertan, Zuriñe Rodriguez, Lore Etxeberria eta Estitxu Garairekin batera egindako azterlanaren gakoetako batzuk azaldu dira.
7. Euskalerriaren Adiskideen Elkartearekin batera, *Emakumeak Bizkaian* jardunaldiak antolatu dira: *Argiak eta itzalak* jardueran, honako ponentzia eta mahai-inguruak egin dira:

   - “Emakumea eta zientzia” - otsailaren 5ean-

   - “Emakumeak XXI. mendeko gizartean” - otsailaren 12an.

- “Emkumea, Lidertza eta Ekintzailetza” - otsailaren 19an.
- “Emakumea politikan” - otsailaren 26an-

8. Martiaren 1ean: Euskal Emakume Hautetsien HIRUGARREN Batzarra, Gernikan

9. Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dabe *Bilbao Bizkaia HARRO* "Hiria eta Lurraldea" ekitaldiagaz, sexu aniztasun afektiboaren eta mundu osoko LGBTI pertsonen eskubideen aldeko herritarren alkartasuna ospatzeko; gorputza adierazpen politiko gisa gaiari buruzko erakusketa artistikoa egin da.
10. *“Ezkutuko ondarea. Emakumeen errealitateak Bizkaian*” liburuaren eta eskuliburuaren aurkezpena eta argitalpena. Era berean, material biok Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzetan eta Bizkaiko emakumeen elkarteetan banatu dira.
11. Umeen ikuspegitik genero-indarkeriaren prebentzinoaren ganeko Osoko monografikoa egin da.
12. Bizkaian gertatutako eraso matxisten hiru kondena-adierazpen egin dira.
13. Bardintasun Planaren aurkezpena egin jake XI. agintaldiko batzarkideei.
14. Gernikako Batzar Etxean Bizkaiko nekazarien alkarteei (Saskia, Etzaldeko Emakumeak eta Landa XXI) harrerea egin jake.
15. 2019ko azaroaren 25eko adierazpena, Gernikako Osoko Batzarrean berretsia, indarkeria matxistaren biktimen erreparazinorako ekintzei buruzkoa.
16. Bizkaiko Batzar Nagusiak Leiria Vay buruzagi indigenagaz bildu ziran. Leiria maia da, K’ichéa indigena taldekoa, Enpresen Administrazioan lizentziaduna eta CODECAko (Guatemalako Landa Garapenerako Batzordea) buruzagia. Guatemalako eta bertako biztanleen egungo egoereari eta CODECAk egiten dauen burrukeari buruz jardun eban.
17. Webguneko BARDINTASUNA atala: eten barik sartu dira materiala eta albisteak.

3.- Emaitza orokorrak. Betete-mailea

Atal honen helburua da BERARIAZ ezagutzea zein izan dan aurreikusitako ekintzen betete-mailea eta 2019ko Plan Operatiboan planifikatutakoaren aldean izandako desbideraketea.

Bizkaiko Batzar Nagusien Bardintasunerako I. Plana (2017-2020) 4 jarduketa-arlok edo esparruk osatzen dabe, eta 42 neurri ditue guztira.

2019. urterako, plan operatibo bat definidu zan, martxan jartekoak ziran **37 neurri** zituana. Neurriok honela banatzen dira jarduketa-lerro bakotxean:

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK 2019
GOBERNANTZA. .- BARNE-KUDEAKETEA	➲ Bardintasun-plana bizirik mantenidutea, plana kudeatzeko egiturak eta baliabideak sortuz. ➲ Guneak sortu eta mantenidutea bardintasunagaz lotutako informazinoa eta agiriak trukatzeko. ➲ Erakundearen parte diran personen bizitza-arloen bateragarritasuna hobetzea, martxan ipiniz denporea kudeatzeko baliabideak eta estrategiak ➲ Bardintasunerako prestakuntzea emotea behargin finko zein behin-behinekoei eta batzarkideei. ➲ Emakumeen eta gizonen presentzia orekatzea antolamentu-egituraren arlo, kategoria eta lanpostuetan, eta genero-arrakalea minimizetea. ➲ Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea gobernu-organoetan eta ganerako egituretan (batzordeak, bozeroaleak...). ➲ Entidade hornitzaileak kontratetean, bardintasunaren alde daukien konpromisoa baloretea. ➲ Sexuaren arabera bereizitako datuak eskura eukitea.	15

ERAGIN SOZIALA	➲ Definidu, partekatu eta zabaltzea Erakundearen bardintasun-politikea. ➲ Herritarrek, eta batez be emakumeek, Batzarren jardueretan parte hartu daiela sustatzea (osoko batzarra, batzordeak, etab.) eta hareen eragina gizartean indartzea. ➲ Erakundeak bardintasunaren alde daukan konpromisoa ikusgarri egitea eta bardintasunagaz bat datozan jarduerak sustatzea.	7
KOMUNIKAZINOA	➲ Hizkera eta irudien erabilera bardinzaleago baten aldeko jarraibideak eukitea. ➲ Komunikazino-baliabideak hobetzea, hizkera bardinzaleagoa izan daiten, baita ahozkoan be. ➲ Erakundeak bardintasunaren alde daukan konpromisoa jakinarazo eta zabaltzea ➲ Komunikazinoan tratu ona eta errespetua sustatu eta zabaltzea. ➲ Batzar Nagusiei buruzko jakinarazpenak, prentsa-oharrak eta albisteak genero-ikuspegitik idatzi eta argitaratu daitezala jagotea.	8
EMAKUMEEN IKUSGARRITASUNA EUSKAL ERAKUNDEETAN	➲ Bizkaiko Lurralde Historikoaren eraikuntzan emakumeek egin daben ekarpena ezagutarazotea. ➲ Emakumeek Bizkaiari ze ekarpen egiten deutsien azalarazoten laguntzea.	7

37 ekintzetatik, 25 (% 68) egin dira guztiz, eta 7 (% 19) partzialki. Horrek esan gura dau aurreikusitako ekintzetatik hamarretik zortzi egin dirala.



Orokorrean, esan leiteke betete-mailea oso altua izan dala, guztiz egin diran ekintzak eta partzialki egin diranak baturik % 87ra (32) heltzen diralako.

ARLOAK	GAUZATUTA (G)			PARTZIALKI GAUZATUTA (PG)			GAUZATU BARIK (GB)			T	Betete-mailea %
	zk.	%V	%H	zk.	%V	%H	zk.	%V	%H		(G+PG)
Gobernantza.- barne-kudeaketea	10	% 40	% 67	3	% 5044	% 20	2	% 33	% 1	**15**	**% 87**
Eragin soziala	4	% 16	% 58	2	% 28	% 28	1	% 17	% 0	**7**	**% 86**
Komunikazinoa	5	% 20	% 62	2	% 025	26	1	% 33	% 0	**8**	**% 88**
Emakumeen ikusgarritasuna euskal erakundeetan	6	% 24	% 86	0	% 0	% 0	1	% 17	% 0	**7**	**% 86**
GUZTIRA	**25**	100	% 68	**7**	97	% 19	**5**	% 100	% 4	**37**	**% 87**

Aurkeztutako taulan, hau nabarmentzen da:

- ✓ 37 ekintzetatik 32 betete-ehunekoaren barruan dagoz.
- ✓ Planaren ardatz guztiek betete-maila handia dabe, egindako eta partzialki egindako ekintzak bilduz (% 86 eta % 87 bitartean).
- ✓ Gauzatutako ekintzen % 40 GOBERNANTZA-BARNE-KUDEAKETA arlokoak dira.

Beheko grafikoak ekintzen egikaritza-mailea erakusten dau, ardatz estrategikoen arabera. Bertan, modu bisualean aztertu leitekez aitatutako datuak.



Gauzatu bako ekintzak

Jarraian emoten dira partziallki gauzatu diran jardueren zehaztasunak; jarduerok 2020an osorik gauzatzen saiatuko da.

- 1.5. Liburutegi birtuala sortzea (bideoak, azterlanak, eskuliburuak, araudiak eta abar).
- 01.12 Datozen urteei begirako belaunaldi-erreleborako plan bat aztertzea, lanpostuak beteten dirala eta genero-desorekak minimizetan dirala bermatzeko.
- 01.13 Genero-arrakalea (sexu-bereizketa bertikal eta horizontala, soldata-desbardintasuna eta abar) aldiro neurtzea ahalbidetuko daben adierazleen multzoa zehaztea, eta arrakala hori minimizetako neurriak definidutea.
- 2.5. Batzar Nagusiek herritarrei begira antolatzen dituen jardueren genero-inpaktua ebaluetea.
- 3.5. Bardintasunezko komunikazinorako Bizkaiko Batzar Nagusien oinarrizko eskuliburua idatzi eta ezagutzera emotea.

Partzialki gauzatutako ekintzak

Jarraian emoten dira partzialki gauzatu diran jardueren zehaztasunak; jarduerok 2020an osorik gauzatzen saiatuko da.

1.7. Etenbako prestakuntza-plana diseinetea beharginentzat; bertan, genero-perspektibea daukien edo bardintasunaren arloan espezifikoak diran ekintzak sartuko dira. GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUEI buruzko mintegi espezifiko bat antolatuko da.

01.10 Batzordeetan eta gobernu-organoetan parekotasuna bermatuz joateko formulak aztertzea. Presidenteen eta erantzukizuneko beste kargu batzuen osaeran azken urteetan izandako joerak aztertuko dira, eta, halan bajagoko, etorkizunean sartu beharreko formulak balorauko dira.

1.12 Datozen urteei begirako belaunaldi-erreleborako plan bat aztertzea, lanpostuak beteten dirala eta genero-desorekak minimizetan dirala bermatzeko. 01.13 Genero-arrakalea (sexu-bereizketa bertikal eta horizontala, soldata-desbardintasuna eta abar) aldiro neurtzea ahalbidetuko daben adierazleen multzoa zehaztea, eta arrakala hori minimizetako neurriak definidutea. 2020rako adierazleak jasoko dira. (Ekintza biok lotzea).

1.17 Aurrekontu orokorrak genero-ikuspegitik lantzea. Gaiari buruzko prestakuntza espezifikoa jaso ondoren hasiko da.

2.9. Indarkeria gaitzesteko ikurrak ikusgarri ipintea Erakundearen eraikinetan, Bizkaian eta Euskadin oro har emakumeakazko indarkeria-kasuak gertatzen diranean. ERANTZUN-PROTOKOLO propioa egitea erabagi da.

3.9. Erritu, zeremonia, espazio eta abarretan izaera sexistea daukien zantzuak aztertzea, maskulinidadeagaz lotutakoak batik bat, eta aurkitutakoak desagerrarazotea. Azken urteetan genero-balantzea/eragina egiteko dagozan errituak identifikatuko dira.

BALORAZINOA

Planaren garapena positiboa izaten ari da, nahiz eta erakundean bertan hauteskundeak egiteak zenbait ekintza 2020rako atzeratzea ekarri dauen.

Sentsibilizazinoan eta barne-kudeaketan, komunikazioan eta ingurune-eraginean lan egiten jarraitu dogu, euskal erakundeetan emakumeak komunikatzeko eta ikusarazoteko ardatzak azpimarratuz. Ildo horretatik, “Emakumeen Batzar Nagusiak” gizartean oihartzun handia dauen "ekintza izarretako" bat izaten jarraitzen du.

Planari eskainitako baliabideak eta ahaleginak nabarmenak dira, alde batera itxi barik bardintasunaren arloan aliantzak —barrukoak zein kanpokoak— batzen jarraitzeko beharra.

Agintaldi barria hasita, irailean pertsona barriak sartu ziran Erakundean eta Bardintasun Taldean; pertsona bat gehiago dago, hau da, 11 pertsona dira, 10 emakume eta gizon 1.

2019an egoan jatorrizko Bardintasunerako lantaldeak 7 emakumek eta 3 gizonek osotzen eben.

	PLANTILLEA
1. Iñigo Camino García	*Komunikazinoa*
2. Ainara Arranz Nuñez	*Abellaneda*
3. Maria Pilar Martinez Diez	*Legelaria*
4. Ainhoa Erauskin Garai	*Gernika*
5. Mireia Liaño Miguélez	*Administrazioa*
	BATZARKIDE-TALDEAK
6. Ana Otadui Biteri	*Batzar Nagusietako Lehendakaria*
7. Begoña Gil LLanos	*PSEko batzarkidea*
8. David Lopategi Escudero	*EH BILDUko batzarkidea*
9. Eduardo Andrés Ricoy	*PPko batzarkidea*
10. Asun Merinero Sierra	*Podemos Bizkaiako batzarkidea*

Bardintasunerako oraingo lantaldea 10 emakumek eta 1 gizonek osotzen dabe. 5 lagun barri dagoz.

PLANTILLEA	
1. Izaskun Llona (barria)	*Komunikazinoa*
2. Pilar Dosal (barria)	*Ekonomi aholkularia*
3. Ainara Arranz Nuñez	*Abellaneda*
4. Maria Pilar Martinez Diez	*Legelaria*
5. Ainhoa Erauskin Garai	*Gernika*
6. Mireia Liaño Miguélez	*Administrazioa*
BATZARKIDE-TALDEAK	
7. Ana Otadui Biteri	*Batzar Nagusietako Lehendakaria*
8. Begoña Gil LLanos	*PSEko batzarkidea*
9. Raúl Méndez Urigoitia (barria)	*EH BILDUko batzarkidea*
10. Amaya Fernández Angulo (barria)	*PPko batzarkidea*
11. Eva Cabornero Alor (barria)	*Podemos Bizkaiako batzarkidea*

Lantalde honek batzar bi egin ditu jarraipena eta koordinazinoa egiteko; batzarrok laguntza teknikoa emoteaz arduratzen dan MURGIBE entidadeagaz egin dira.

4. Adierazleen segimentua

Jarraian, martxan jarritako prozesuen eta hareen emaitzen adierazle nagusiak erakusten dira.

I. Planaren indarraldia amaitzear dagoanez, 2020an haren genero-eraginaren ebaluazinoa egingo da, horretarako beharrezkoak diran tresnak garatuz.

O1. ARDATZA: GOBERNANTZA–BARNE-KUDEAKETEA

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak
✓ Bardintasunerako Lantaldeari eutsi jako. ✓ Bardintasunari esleitutako 2019. urteko aurrekontua 93.734,13 €koa izan da, Bizkaiko Batzar Nagusien aurrekontu orokorraren % 1,05.	✓ Ekintzen % 60a guztiz gauzatu da. ✓ Bardintasunerako Lantaldeak bilera 2 egin ditu. Batez besteko parte-hartzea: 8 persona (7 emakume eta 1 gizon). ✓ 25 albiste argitaratu dira Bardintasun Planaren inguruan. ✓ Sexuaren aldagaia jaso da bisitarien erregistroan. ✓ Aurrekontuaren zati bat Bardintasunerako Plana betearazteko jardueretara bideratuko da. ✓ Ardurea hartzen da parlamentu-antolaketako eta jarduerako ordutegiak ez daitezan izan lan-bizitzea eta familia bateragarri egin beharraren kontrakoak.

O2. ARDATZA: ERAGIN SOZIALA

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak
✓ Euskadiko Emakume Hautetsien hirugarren Batzarra egin da. ✓ Ezkutuko ondarea. Emakumeen errealitateak Bizkaian" liburuaren argitalpena. ✓ Gernikako Batzar Etxean Bizkaiko nekazarien alkarteei (Saskia, Etzaldeko Emakumeak eta Landa XXI) harrerea egin jake.	✓ Ekintzen % 58a guztiz gauzatu da. ✓ 120 emakumek hartu dabe parte Euskadiko Emakume Hautetsien Batzarrean. ✓ *"Ezkutuko ondarea. Emakumeen errealitateak Bizkaian"* liburuaren argitalpena Bizkaiko emakumeen alkarte guztien artean banatu da. ✓ Bizkaian jazotako indarkeria matxistearen hiru kasutan, erakundearen gaitzespena adierazo da.

O3. ARDATZA: KOMUNIKAZINOA

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak
✓ Dokumentazinoa barrikusi da (liburuxkak, gidak, administrazino-dokumentuak, webgunea eta intraneta) komunikazino inklusiboaren ikuspegitik, eta egokitu da dokumentuetako hizkerea eta irudien erabilerea. ✓ "Alkarrizketak bardintasunean" jarduerearen edizino bi antolatu dira. ✓ Bardintasun-Planaren aurkezpena egin jake XI. agintaldiko batzarkideei. ✓ Webguneko BARDINTASUNA atala: eten barik sartu dira materiala eta albisteak.	✓ Ekintzen % 62a guztiz gauzatu da. ✓ Hitzaldietan izan dan batez besteko parte-hartzea: 22 emakume eta 10 gizon.

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak

O4. ARDATZA: EMAKUMEEN IKUSGARRITASUNA EUSKAL ERAKUNDEETAN

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak
✓ Emakume Hautetsien Batzar Nagusia egin da Gernikan. ✓ "*Emakumeak Bizkaian"* jardunaldiak antolatzea. *Argi-ilunak* ✓ Bilbao Bizkaia HARRO erakusketea, gorputza adierazpen politiko gisa gaiari buruzkoa. ✓ Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartzea. *Ondarea, emakumeen emaria*, zazpi jarduera antolatuz. ✓ Bizkaiko Batzar Nagusiak Leiria Vay buruzagi indigena maiagaz bildu ziran.	✓ Ekintzen % 86a guztiz gauzatu da. ✓ Antolatutako jardueretan guztira izandako parte-hartzea: 360 emakume eta 140 gizon